

# Compañía



Poltsikoak ogi orez beteta paseatuko gara eta ondoren oreka egosiko dugu ogiek poltsiko forma izan dezaten.

## Helburuak

- Fermin Jiménez Landaren lan eta prozesuetara hurbiltzea.
- Gure eguneroko ingurunearen behaketa sustatzea, eguneroko ekintzak birpentsatzea (paseatzea eta jatea esaterako).
- Egunerokoa, ematen zaigun, baina alda dezakegun zerbait dela pentsatzea.
- Irudimena, absurdoa eta gutxieneko keinuak ezagutzea, gogoeta egiten laguntzen diguten sormen-estrategia gisa.

## Aipamenak

*Roman Ondák. Swap. Performance at 14 Rooms (2014):* <https://www.youtube.com/watch?v=gkgV-vDYFts>

*Returning A Sound Allora & Calzadilla colab w/ FabianWilkins - Julio Morales:* <https://youtu.be/i-fGxVNa2OQ>

*Francis Alÿs Zapatos Magnéticos:* <https://youtu.be/5Azap6LJezI>

*Cuentos patrióticos 1997 - Francis Alÿs:* <https://youtu.be/UtWUqBR1Eww>

*Roman Signer:* <https://youtu.be/lkeyIsQoYRk>

*The Way Things Go de Peter Fischli:* <https://youtu.be/GXrRC3pfLnE>

*Signers Suitcase (Table) de Roman Signer:* <https://youtu.be/Oxdg9xEd2vk>

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

1. Compañía, konpainia eta laguntza kontzeptuei eta ogia partekatzearen jatorri etimologikoari buruz ikertuko dugu.
2. Hurrengo gaiei buruz lan egiten duten beste artista batzuen lanak aurkeztuko ditugu:
  - a. Monumentuen aurkakotasuna eta gutxieneko keinua:
    - Francis Alÿs: *The Nightwatch*
    - Roman Ondák: *Resistance*
    - Gabriel Orozco: *Home run*
  - b. Egunerokoa:
    - Wilfredo Prieto: *Grasa, jabón y plátano*
    - Kirsten Pieroth: *Kreuzberg puddle*
  - c. Janaria:
    - Damian Ortega: *Tortillas*
    - Felix González-Torres: *Sin título (Caramelos con el peso de su amante)*
    - Janine Antoni: *Roer*
3. Ferminen artelanak aurkeztuko ditugu:
  - Es maravilloso estar aquí pero es maravilloso estar donde sea*
  - Ecuestre*
4. Ogiaren proposamena eta poltsikoekin lan egitearen ondorioak azalduko ditugu -txikia, ezkutua eta gorputzarekin lotutakoa-. Ikusitako artelanekin lotzen dugu.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Irina eta ura bosteko mahietan banatuko ditugu. Horrela prest egongo dira eskuak zuzenean mahai gainean jartzeko. Ogia oratzen dugu sendotasun egokia izan arte.
2. Orea praktetan sartzen dugu. Janaria praktetan sartzeak sortzen duen sentsazioaz hitz egiten dugu. Ehunduz gozatu.
3. Poltsikoek zer ezkututzen duten ezagutarazi gabe paseatzera ateratzen gara. Klasearekin sekretu bat partekatzen dugu.

4. Ogia non egosiko dugun erabakitzen dugu denon artean. Ikastetxeko sukaldean, ikasle edo lagun baten etxean edo inguruko jatetxe edo okindegi batean izan daiteke.

5. Gure ogiak laboratzeko aukeratutako labera joango gara.

### Ondorioak eta lerro irekiak

1. Gure ogiak behatzen ditugu. Ezagutzen dugun zerbaiten antza dute? Zer irudituko zaizkio zer diren jakin gabe ikusten dituen norbait? Poltsikoen formei buruz inoiz pentsatu al dugu? Gure ikaskideen ogiak ezberdinak dira? Zer da dibertigarriagoa; prozesua ala emaitza?
2. Emaitza usaindu eta jan egingo dugu. beste arau batzuekin?
3. Jaten dugu bitartean, berriketa bat sortzen dugu. Hemendik aurrera, uste al duzu keinu txiki honek aldatu duela eskuak poltsikoetan sartzen ditugunean pentsatzen duguna? Eta ogia jaten dugunean? Eguneroko ze beste elementurekin egin ditzakegu moldeak? Zer gehiago egin dezakegu poltsikoekin?